

JARRAIBIDE TEKNIKOA- 04

(JT-04): ETXEAN BAKARTUTA DAUDEN COVID-19 KASUEN HONDAKINEN GARBIKETA ETA MANEUIA

2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública
y Adicciones

Dokumentua: JT-04: Etxean bakartuta dauden COVID-19 kasuen hondakinen garbiketa, desinfekzioa eta maneiua

Jarraibide teknikoa, Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko agindua, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituen, garatzen duena.

Argitaratze-data:

2020ko apirilaren 1a. 0 bertsioa

Jabea:

Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila.

Edukia

1. JUSTIFIKAZIOA.....	1
2. XEDEA	1
3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK.....	1
4. GAIXORIK DAGOEN PERTSONAREN GELAKO GARBIKETA.....	2
5. OHEKO ARROPA, TOALLAK, GAIXOAREN ARROPA.....	2
6. GAIXOAREN ONTZITERIA	2
7. HONDAKINEN MANEIUA.....	2
8. ETXEKO GAINERAKO LEKUEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA	3

1. JUSTIFIKAZIOA

SARS-CoV-2 birusaren infekzioa 5 mikratik gorako arnas-tanten bitartez eta infektatutako pertsonen sekrezioekin harreman zuzena edukita transmititzen da batez ere, pertsona batetik bestera, baina ez dirudi metro batetik edo bi metrotik gorako distantzietan gertatzen denik. Eskuetan edo bestelako objektu edo gainazaletan egon daitekeen material kontaminatuaren bitartez ere eman daiteke kontaktua. Beraz, oso garrantzitsua da higieine eta garbiketa neurriak zorrotz betetzea.

Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 2ko aginduak, SARS-CoV-2ak (COVID-19) eragindako pandemiaren ondorioz gainazalen garbiketa eta desinfekzioaren inguruko neurriak eta bestelako neurri higienikoak ezartzen dituenak, garbiketaren eta desinfekzioaren inguruan aintzat eduki beharreko alderdi orokorrak xedatzen ditu, eta garbiketa eta desinfekzioa jarraibide tekniko bidez egingo direla horren aplikazio-eremuan zehaztutako atal desberdinetan; hala, eguneratu eta beharretara zein ezagutza tekniko eta zientifikoaren aurrerapenetara egokitu beharko dira.

2. XEDEA

Etxean bakartuta dauden COVID-19 kasuen hondakinak garbitu, desinfektatu eta maneiatzeko jarraibideak ezartzea.

3. GARBIKETA ETA DESINFEKZIO NEURRI OROKORRAK

Garbiketa-planak funtsezko hiru alderdi eduki behar ditu kontuan: aireztatzea, garbiketa eta desinfektatzea.

Aireztatzea garrantzitsua da, barruko airearen kalitate ona mantentzeko.

Garbiketa gainazaletako zikinkeria kentzean datza, germenak barne. Horretarako, bitarteko mekaniko eta kimikoak (detergenteak) erabiltzen dira. Garbiketak bakarrik ez ditu germenak hiltzen edo desaktibatzen, baina txikitu egiten du horien kopurua; beraz, infekzioa transmititzeko arriskua ere txikitu egiten du.

Desinfektatzea, produktu kimikoak erabiltzen dira, baimendutako biruzidak, besteak beste, gainazaletako germenak hiltzeko/desaktibatzeko. Prozedura horrek ez du zikinkeria kentzen nahitaz, baina gainazaletako germenak hiltzen ditu. Garbiketaren ondoren, desinfekzioak are gehiago txikitzen du infekzioa transmititzeko arriskua.

Garbiketa eta desinfekzio produktuen **etiketek** horiek segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak dituzte, hartu beharreko neurri buruzko informazioa barne.

4. GAIXORIK DAGOEN PERTSONAREN GELAREN GARBIKETA

- Gelako gainazal guztiak egunero garbitu: mahaiak, ateetako heldulekuak, komuneko osagarriak, komun-ontzia, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, tabletak, mugikorra eta abar.
- Ahal bada, gaixoak berak egingo du eta, bestela, horren zaintzaileak.
- Garbiketa zaintzaileak egiten badu, erabili eta botatzeko eskularruak eta maskara (eskuragarri badago) erabiliko ditu.
- Desinfektatzeko, lixiba diluitua duen etxerako produktu bat erabili (etxerako lixiba parte bat, %5ekoa, eta 49 parte ur), berriki prestatutakoa. Lixiba erabil ezin daitekeen gainazaletan, etanola (%70) erabiliko da.
- Ongi aireztatu gaixorik dagoen pertsonaren gela, baina atea itxita, beti.

5. OHEKO ARROPA, TOALLAK, GAIXOAREN ARROPA

- Ahal bada, gaixorik dagoen pertsonak itxiera hermetikoa duen poltsa batean jasoko du garbitu beharreko arropa.
- Arropa zaintzaileak jasotzen badu, gela barruan jasoko du, eta erabili eta botatzeko eskularruak eta maskara (eskuragarri badago) erabiliko ditu.
- Poltsatik ateratzerakoan, ez arropa astindu, eta sartu garbigailuan berehala. Kontuz egin eta, ahal bada, poltsa garbigailu barruan hustu.
- Eskuak garbitu eta garbigailua abian jarri. Ur beroko (60-90 °C) programa bat erabili, ohiko detergenteekin.
- Gaixorik dagoen pertsonaren arropa etxeko gainerako arropatik aparte garbitu.

6. GAIXOAREN ONTZITERIA

- Ontzi-garbigailua edukiz gero, familiaren gainerako ontziekin batera garbi daiteke, 50-60 gradutik gorako tenperaturan.
- Ontzi-garbigailurik ez badago, lehenengo familiaren ontziteria garbitu eta, azkenik, gaixorik dagoen pertsonarena. Ur berotan beratzen utzi aurrena, detergentearekin. Ondoren, ongi garbitu eta uretan pasa.

7. HONDAKINEN MANEIUA

- Gaixorik dagoen pertsonaren hondakinak, erabili eta botatzeko materiala barne (eskularruak, mukizapiak, maskarak), plastikozko poltsa batean (1 POLTSA) bota behar dira, gelako zakarrontzi batean; ahal bada, tapa eta pedala edukiko ditu zakarrontziak, eta ez da birziklatzeko bereiziko.

- Plastikozko poltsa (1 POLTSA) ongi itxi behar da, eta bigarren zabor-poltsa (2 POLTSA) batean sartu, gelako irteeran; zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara ere bertan potako dira, eta ongi itxiko da gelatik irten aurretik.
- 2 POLTSA, aurreko hondakinak dituen, etxeko gainerako hondakinekin utziko da zabor-poltsan (3 POLTSA). 3 POLTSA ere ongi itxiko da.
- Ondoren, eskuak ongi garbituko dira, xaboi-urarekin, 40-60 segundoan gutxienez.
- 3 POLTSA errefusaren edukiontzian utziko da; guztiz debekatuta dago gaikako edukiontzietan (organikoa, ontziak, papera, beira edo ehunak) edo inguruko beste lekuren batean uztea.

8. ETXEKO GAINERAKO LEKUEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

- Egunero, libibarekin garbitu maiz ukitzen diren gainazal guztiak: mahaiak, ateetako heldulekuak, komuneko osagarriak, komun-ontzia, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, tabletak eta abar, ohi bezala (etxerako libibaren parte bat, %5ekoa, eta 49 parte ur).
- Etxeko gainerako lekuak egunero ongi aireztatzen direla ziurtatu.

1 irudia: Esku-garbitzea

